

Asteartea, 2013/04/16

Kronika.net

Argazkiak

Elkarriketak

Jasota Bezala

Inkesta eta Eztabaida

Zerbitzu eta Helbideak

Agenda

Kronika Bereziak

Dokumentuak

Egin Bazkide

**AURREKO
EDIZIOAK**

Aukeratu nahi duzun
data

2013

apirila

15

BILATU

Kronika Zaharrak

ARGITARATZAILEA



LAGUNTZAILEAK

KRONIKA.NET



BIZI SAGARDOA ELKARTEA

**Bizi Sagardoa, Euskal Herriko elkarte berria,
sagardoaren kultura eta turismoa bultzatzeko**

**Donostiako Aquariumean aurkeztu zuten talde berria,
Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako 30 eragilek; tartean,
lau lurraldeetako Sagardogileen Elkarteak edo Ereñotzuko Auzo
Udala, esaterako.**

2013/04/16 - Asteartea



Sagardoaren kultura eta turismoa bultzatzeko elkarte berria aurkeztu zuten atzo Donostiako Aquariumean: Bizi Sagardoa elkarte. Euskal Herriko lau probintzietako elkarteak (67 sagardotegi biltzen dituzte), 9 udal, fundazioak, museoak, hezkuntza zentroak... Guztira 30 eragilek sortu dute taldea eta tartean da Ereñotzuko Auzo Udala, besteak beste. Atzoko ekitaldian babesa azaldu zioten elkarte honi, Donostiako Aquariumak (Bixente Zaragueta hernaniarrak hitz egin zuen, hain justu), Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Diputazioak, eta Basquetour Agentziak.

«Ekitaldi historikoa, EHko sagardoaren historian»

Parte hartzaile guztiek azpimarratu zuten, atzoko ekitaldia historikoa izan da Euskal Herriko sagardoarentzat: «Historikoa da gaurko ekitaldia, inoiz ez baita proiekturik gauzatu, Euskal Herriko lurralde desberdinetako hainbeste eragile lotuko dituenik». Hernaniar gehiago ere izan ziren atzoko ekitaldian. Arantxa

BILATZAILEA

Idatzi bilaketa hitza(k)

BILATU

GAURKO KRONIKA



ARGAZKIAK



IKUSI



**Korrika 18
Hernanin**

testiguz testigu

klik hemen

Eguzkitza Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteko lehendakariak azaldu zuenez, ateak zabalik dituzte elkarteko kide izan nahi duten eragile guztientzat. Jakoba Errekondo Zerain Dezagun Fundazioko arduradunak hiru hitzetan laburbildu zuen atzokoa: Aniztasuna, Elkartasuna eta Etorkizuna. «Inoiz sortu den talderik anitzena da hau, era guztietako eragileak biltzen dituelako. Sagardoak sekulako garrantzia izan du gure historian, eta hori da etorkizunean saltzen jakin behar duguna».

Parte hartzaileak:

- Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea
- Bizkaiko Sagardogileen Elkartea
- Arabako Sagardogileen Elkartea
- Nafarroako Sagardogileen Elkartea
- Ereñotzuko Auzo Udala
- Zubietako Auzo Udala
- Zeraingo Udala
- Aiako Udala
- Aramaioko Udala
- Abaltzisketako Udala
- Baztango Udala
- Cuadrilla de Zuia
- Valle de Aranako Udala
- Ezkio-Itsasoko Udala
- Igartubeiti Baserri Museoa
- Zerain Dezagun Fundazioa
- Aramaioko Frutagileen Elkartea
- Jo Hala Jo Elkartea
- Usurbilgo Sagardoaren Lagunak
- Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba
- Albaola Elkartea
- Urkiola Landa Garapenerako Alkartea
- Polunpak Elkartea Musiko-Kulturala
- Zehazten Zerbitzu Kulturalak
- Aldabe Zerbitzu Turistikoak
- Usurbilgo Sagastia EM
- Sagardoa eta Sagarra Unibertsitatea



Zabaldurako!

Atzera egin | Inprimatu | Norbaiti bidali

web mapa | kontaktua

THEMOVIE S.L.-k garatua, 2005



**Liburua
erosteko,
klik hemen**



Ibilbide Sarea:
Sagardotegiak

2013ko Martxoak 8
- Udal Adierazpena

Parot doktrinari
buruzko mozioa

Saharako herriari
buruzko mozioa

Udal Baratzen
araudi orokorra

Gehigarria: Hemen
da Hernaniko
sagardo berria!

Saskien zozketa -
IRABAZLEAK

Gehigarria:
Gabonak

GEHIGARRIA: GORA
EZKONBERRIAK!

GEHIGARRIA:
AUKERA UGARI
HERNANIN, ETXEA
JANZTEKO -
SAGASTIYA

GEHIGARRIA:
OPORRETARAKO
PREST AL
DAUKAZU
IBILGAILUA?

GEHIGARRIA:
ERRUGBIA 1GO
MAILARA

GEHIGARRIA:
ZAINDU PAUSOZ

PAUSO



**BESTE
HEDABIDEAK**
TOKIKOM

NOAUA! ASTEKARIA:

Agirretxe taldearekin
Vallecasera

NOAUA! ASTEKARIA:

FUTBITO TXAPELAKETA
Izen - ematea apirilaren
12rarte

NOAUA! ASTEKARIA:

Zubikasi, prestakuntzara
bideraturiko zerbitzua
zabalik Lanbide Eskolan
